

2340

AGINDUA, 2007ko martxoaren 20koa, Kultura sailburuarena, Zizurkilgo (Gipuzkoa) Irazugoikoa baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2006ko abenduaren 11ko Ebazpenaren bidez Zizurkilgo (Gipuzkoa) Irazugoikoa baserriak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2007ko urtarrilaren 31ko EHAA (22. zk.) argitaratu zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espediente jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3 artikuluetan eta artikuluko horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Zizurkilgo (Gipuzkoa) Irazugoikoa baserria Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

Bigarrena.– Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari agindu honen berri ematea.

Laugarrena.– Zizurkilgo Udalari bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezala eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

2340

ORDEN de 20 de marzo de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Caserío Irazugoikoa en Zizurkil (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del Caserío Irazugoikoa en Zizurkil (Gipuzkoa), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 11 de diciembre de 2006, publicada en BOPV n.º 22, de 31 de enero, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se han presentado alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.– Inscribir el Caserío Irazugoikoa en Zizurkil (Gipuzkoa), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

Tercero.– Comunicar la resolución al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarto.– Instar al Ayuntamiento de Zizurkil para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Bosgarrena.– Espedienteko interesdunei, Zizurkilgo Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Lurralde Antolamendu eta Sustapenerako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari agindu hau jakinaraztea.

Seigarrena.– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.– Inskribatzeko den agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango du ondorioak.

Bigarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaiket Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko martxoaren 20a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren deskribapena.

Bi eremu mugatzen dira; alde batetik baserria bera, eta, bestetik, baserri-ingurua. Horrenbestez, hauek dira mugaketa-eremuaren mugak: hegoaldera, fatxada horri paraleloa zaion lerroa, fatxadatik 25 metrora; ekialdera, fatxadari paraleloa zaion lerroa, handik 25 metrora; iparraldera, fatxadari paraleloa zaion lerroa, 25 metrora; eta, azkenik, mendebaldera, bide publikoko ertzari jarraitzen dion lerroa, fatxadatik 8 metrora unerik estuenean eta 15 metrora unerik zabalenean.

b) Mugaketaren arrazoiak.

Mugaketa hau egin da, beharrezkotzat jo baita Irazugoikoa baserriko ingurumeneko eta ikuseremuko balioak zaintzea. Baserri hori Buztinbailarako bizkar zabal baten gainean dago. Ingurunea mugatzea beharrezkoa da ondasuna behar bezala babesteko eta hari balioa emateko, eta, mugaketa horren bidez, baserri inguruko lurra eta baserrira joateko bideak babesten dira, baserriaren berezko izaerari eusteko. Hori dela-eta, baserri-eraikina ez ezik, baserri-ingurua ere sartzen da mugaketa honetan.

Quinto.– Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Zizurkil, a los Departamentos de Cultura y Ordenación y Promoción Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de marzo de 2007.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ANEXO I


Delimitación

a) Descripción de la delimitación.


La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí y, por otro, el entorno que lo rodea. Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al S una línea paralela a esta fachada y distante 25 m de la misma; al E una línea paralela distante 25 m de la misma; al N una línea paralela situada a 25 m de la fachada; finalmente al W una línea que sigue la cuneta del camino público existente que dista de la fachada 8 m en su parte más estrecha y 15 m en su parte más ancha.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Irazugoikoa, situado sobre una ancha loma de Buztinbailara. La delimitación del entorno, necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío, ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello, esta delimitación incluye no sólo la edificación del caserío propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.



ESKALA / ESCALA



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano:

**IRAZUGOIKOA BASERRIA
BABES EREMUA
ENTORNO DE PROTECCIÓN**

Lurraldea / Territorio:

GIPUZKOA

Data / Fecha: 06/11/2006

Udalerría / Municipio:

ZIZURKIL

Eskala / Escala: 1:20000

II. ERANSKINA

Deskribapena

Oinplano ia karratuko baserria da, 18,5 x 18 metrokoa baitu oina. Bi solairu eta ganbara ditu. Egurrezkoa da estalkia, bi isurialdekoa, hodi-teilaz egina, eta hegoaldera begirako fatxada nagusiarekiko elkarzuta den gailurra. Kanpo-perimetrotako hormak harlanduzkoak eta harlandusko gotikokoak dira.

Hegoaldeko fatxada nagusia harlangaitzezkoa da, eta harlandu-harrizkoa eskantzueta. Horma pikoa irekia zen garai batean, baina egun adreilu-trenkadaz itxia dago. Egurrezko urkila bat du erdian, eta haren gainean dago gailurra. Eraikina sartzeko, beheko solairuan, dinteldun ate bat igaro behar da, harlanduzko ezpadura duena. Solairu horretan, beste hiru leiho-baok ere harlanduzko ezpadura dute. Lehen solairuak kareldun balkoia eta proportzio ezberdineko hiru leiho ditu. Ekialdeko fatxada harlanduz eginda da, eta haren zati bat harlanduzko gotikoz egina da, iparraldean. Beheko solairuan, bi sarbide-ate ditu —batek harlanduzko ezpadura du—, eta bi leiho-baok, sarbide horien ondoan. Lehen solairuan, hiru leiho-baok ditu irekiak, teilatuean. Iparraldeko fatxada harlanduzko gotikoz egina da beheko solairuan eta lehen solairuko zati batean. Lehen solairutik gora, harlanduzkoa da, horma pikoraino. Beheko solairuan, atetzar bat du, dobeladun arku zorrotz baten pean. Beste leiho batek eta gezileiho luze eta estu batek osatzen dute solairu hori. Lehen solairuaren parean, hiru leiho-baok daude, harlanduzko ezpadura dutenak, eta tarte simetrikokoak dituzte haien artean. Amaitzeko, balkoi irtena duen atetzar bat dago, burdinazko baranda eta guztikoa, garai batean lehen solairura igotzeko zen arrapalaren ordez jarritakoa. Mendebaldeko fatxada harlandusko gotikoz egina da, eta du baorik agerian. Horren salbuespen bakarria beheko solairuan irekitako leiho bat da, garai batean leku horretan bertan zegoen gezileiho estu baten ordez jarria.

Irazugoikoa baserriak atal bateko zortzi zutabe-ardatz eta bi bernia ditu, baserriaren erdian goititzen den habe gotikoko dolare zaharrari dagozkionak. Gainera, beste zutabe bat du, kanpotik ikusi ezin dena, eta eraikinak garai batean zuen hegoaldeko fatxada nagusiari dagozkiona. Zutabe horiek habeen bidez mihiztatuta daude, eta beso bikoitzez indartuak. Angelu sarkorretan egiten da mihiztadura. Beheko solairuko zutabe-ardatzetako batek mehegun bat du, zirkulu-erdi baten formakoa. Baliteke mehegun hori baserriko bizileku nagusia zenaren sukaldeko mahai tolesgarriaren edo zizailuaren arrastoa izatea. Halaber, XVI. mendean egindako eskailera baten arrastoak eta mihiztatutako oholtza baten itxituretako mihiztadura-ildoak ikusten dira baserrian.

XVI. mendeko lehen laurdenean eraiki zen Irazugoikoa, eta garai hartakoak dira, hain zuzen, harlanduzko hormak eta egurrezko egitura. XVIII. mendean, eraikina zaharberritu egin zuten; fatxada nagusia aurrera eramanean zen eta gainerako harlandu-hormak eraiki ziren garai hartan.

ANEXO II

Descripción

Caserío de planta casi cuadrada, de 18,5 x 18 m. Dos plantas y desván. Cubierta de madera a dos aguas en teja canal, con gallur perpendicular a la fachada principal de orientación S. Muros perimetrales de mampostería y sillarejo gótico.

La fachada principal S está construida en mampostería con piedra sillar en los esquinales. El hastial, en otro tiempo abierto, presenta en su centro una horquilla de madera en la que se apoya el gallur, y hoy está cerrado con tabique de ladrillo. El acceso al edificio, en la planta baja, se efectúa por una puerta adintelada recercada de piedra sillar. En esta planta existen también otros tres huecos de ventanas, uno de ellos recercado de piedra sillar. En la primera planta, hay un balcón antepechado y tres ventanas de distintas proporciones. La fachada E es de mampostería con parte de sillarejo gótico en la zona N. Presenta en la planta baja dos puertas de acceso, una de ellas recercada de sillar y dos huecos de ventana situados al lado de las citadas accesos. En la primera planta posee tres vanos de ventanas abiertos en el bajocubierta. La fachada N está construida en sillarejo gótico en su planta baja y parte de la primera planta. A partir de ésta, es de mampostería y alcanza hasta el hastial. Presenta en la planta baja un portón con un arco apuntado dovelado. Además, otro hueco de ventana y una larga y estrecha saetera completan esta planta. A la altura de la primera planta se abren tres huecos de ventana recercados de piedra sillar, que guardan simetría. Finalmente, se abre un portón con un gran balcón volado, con baranda de hierro, que sustituyó a una anterior rampa de acceso directo a la primera planta, hoy desaparecido. La fachada W está totalmente construida en sillarejo gótico y no tiene huecos visibles, salvo una ventana abierta en la planta baja que sustituyó a una antigua y estrecha saetera que poseía en este lugar.

La estructura interior del caserío Irazugoikoa se apoya en ocho postes-ejes enterizos y dos bernias de un antiguo lagar de viga gótico que se eleva en el eje del caserío. Además, posee otro poste no visible desde el exterior que proviene de la antigua fachada principal S que tenía el edificio. Los citados postes están ensamblados con vigas y reforzados con tornapuntas dobles. El ensamblaje se realiza en colas de golondrina. En uno de los postes-ejes de la planta baja presenta un rebaje en semicírculo que, posiblemente, pertenezca a la antigua mesa abatible o «zizailu» ubicada en la antigua cocina de hogar central que poseía este caserío. También posee restos de una escalera original del siglo XVI y canales de ensamblaje de cierres de tablazón machihembrado.

Irazugoikoa es un edificio construido en el primer cuarto del siglo XVI, época a la que pertenecen los muros de sillarejo y la estructura de madera. Fue reformado en el siglo XVIII, época en la que se avanzó la fachada principal y se construyó el resto de los muros de mampostería.